



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

18/02/14

PRENTSARAKO OHARRA

## **Gernikako Arbolaren kimu bat Larrabetzun landatzeak Basque Know How Fundazioaren lana omentzen dau**

Gaur goizetik, Basque Know How fundazioak Larrabetzuko Azurmendi moltso eno-gastronomikoan dauen egoitza, mundu osoan Gernikako Arbolaren kimu bat daukan lekuen zerrendan sartu da. Kimua landatzeko ekitaldian Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentea, Lorea Uribarri Fundazioaren zuzendaria, Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkatea, Eneko Atxa sukaldaria, Gorka Izagirre horren osabea eta Azurmendiko taldeko nazinoarteko 40 kide egon dira.

Gernikako Arbolea “euskal herriaren sinbolo unibersala da bost kontinenteetan, gaur egun gure gastronomia bikaina gure herrialdearen sinbolo dan moduan”, adierazo dau Ana Otadui. Kimua gastronomia moltsoan landatzeak errealidade bilakatu dau “garapen jasangarriari emoten jakon laguntzea” dala eta Fundazioari bihotzez eskintzen deusagun omenaldia eskintzeko asmoa. “Gure herrialdean sustrai sendoak ditu, euskal herritarren behararen betidaniko balioei lotuta, etorkizuneko belaunaldientzako legadua bultzatuz, ezagutzan eta barrikuntzan oinarrituta”. Eneko Atxa sukaldariak be Gernikako Arbolaren sinbologia azpimarratu gura izan dau: “Euskaldunok ez gara besteak baino hobeak, baina desbardinak gara, eta Gernikako Arbolea desbardintasun horren erakusgarria da”.

Larrabetzuko alkateak, bere aldetik, bere Udalak garapen jasangarriaren inguruan erakutsi dauen kontzientziazinoa azpimarratu gura izan dau, 2013an, Azurmendi jatetxeagaz batera, *Bertokoa Indartuz* ekimena martxan jarri ebanetik. “Udalak herriko nekazariei ordaindu egiten deutse, atez ateko bilketea egiteko. Organiko horregaz konposta egiten da gure herrian bertan, eta konpost hori bertako soroetan erabilten da”. Iñigo Gazteluk adierazo dauenez, proiektu horri esker 2017an 64.300 kilo organiko berreskuratu ziran.

“Gernikako Arbolaren” soinuak lagunduta lehenengo palakadak emon ostean, bertan alkartu diran guztiek hartu ahal izan dabe parte ekitaldi sinbolikoan. Bukatzeko, Batzar Nagusietako Presidenteak egiazkotasun ziurtagiria entregau dau.

Gastronomia moltsoan landatu dan alea, Gernikako Batzarretxearen, Bizkaiko erakunde organo nagusiaren egoitzearen, buru dan haretxaren ezkurretik datorren “quercus robur” espezieko haretxa da.

14/02/18

NOTA DE PRENSA

## **La plantación de un retoño del Árbol Gernika en Larrabetzu homenaja el trabajo de la Basque Know How Fundazioa**

Desde esta mañana, la sede de la Fundación Basque Know How en el complejo eno – gastronómico Azurmendi en Larrabetzu, ha pasado a engrosar la lista de lugares del mundo que cuentan con un descendiente del Árbol de Gernika. El acto de plantación ha contado con la presencia de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; la directora de la Fundación, Lorea Uribarri; el alcalde de Larrabetzu, Iñigo Gaztelu; el cocinero Eneko Atxa, su socio Gorka Izagirre y 40 integrantes internacionales del equipo de Azurmendi.

El Árbol de Gernika es “símbolo universal del pueblo vasco en los cinco continentes, como hoy es símbolo de nuestro país en todo el mundo nuestra exquisita gastronomía”, ha señalado Ana Otadui. La plantación del retoño en el complejo gastronómico ha hecho realidad un sentido homenaje a la Fundación por su “apoyo al desarrollo sostenible, firmes raíces en nuestro país, aferrados a los valores tradicionales del trabajo del pueblo vasco, propiciando el legado a las futuras generaciones desde el conocimiento y la innovación”. El cocinero Eneko Atxa ha querido destacar también la simbología del Árbol de Gernika: “Los vascos no somos los mejores, sino diferentes, y el Árbol de Gernika es reflejo de esa diferencia”.

Por su parte, el alcalde de Larrabetzu ha querido destacar la concienciación de su ayuntamiento con el desarrollo sostenible desde que en el año 2013 pusieran en marcha, junto con el restaurante Azurmendi, la iniciativa *Bertokoa Indartuz*: “El ayuntamiento paga a agricultores locales para una recogida puerta a puerta. Con ese orgánico se produce compost en el mismo municipio que se reutiliza en las huertas locales”. Gracias a este proyecto, Iñigo Gaztelu ha manifestado que en el 2017 se recuperaron 64.300 kilos de orgánico.

Tras dar las primeras paladas, acompañadas al son del “Gernikako Arbola”, todos los allí presentes han podido participar en este acto simbólico que ha culminado con la entrega, a manos de la Presidenta de Juntas, del certificado de autenticidad.

El ejemplar plantado en el complejo gastronómico es un roble de la especie “quercus robur” que desciende genéticamente de la bellota del roble que preside la Casa de Juntas de Gernika, sede del máximo órgano institucional de Bizkaia.